

2025 • 2026

SAISON KULTURELLE DENBORALDIA

URTARRILA - UZTAILA

CIBOURE • ZIBURU



EGITARAUA

Urtarrilaren 16a (ostirala) | p. 4

Bixintxo Besten irekiera gaua

Otsailaren 7a (larunbata) | p. 5

Orchestre du Pays Basque – Iparraldeko Orkestra-ren
Vivaldi & Corelli, Virtuosité à l'italienne kontzertua

Martxoaren 13a (ostirala) | p. 6

Urdin konpainiaren *Je ne suis pas de celles
qui meurent de chagrin* ikuskizuna

Martxoaren 15a (igandea) | p. 7

Collectif Tutti-ren 3pM ikuskizuna

Apirilaren 8a (asteazkena) | p. 8

Kaskarot-en ibilaldia “Ziburu, memoria bizia”

Apirilaren 15etik 25era | p. 9

Festi-Contes

Maiatzaren 7a (osteguna) | p. 10

Kankarro konpainiaren *Kankarro* ikuskizuna

Maiatzaren 22a (ostirala) | p. 11

Le Polpesse konpainiaren *Attention à ta tête* ikuskizuna

Ekainaren 12a (ostirala) eta 13a (larunbata) | p. 12-13

Xaltaian Best #6

Ekainaren 17tik uztailaren 19ra | p. 14-15

Ziburu hartu liburu – Ciboure part en livre



**ZIBURU
CIBOURE**

MAIRIE – HERRIKO ETXEA

Licence 1 : PLATESV-D-2022-006462

Licence 2 : PLATESV-D-2022-006464

Licence 3 : PLATESV-D-2022-006463

2025-2026 Kultur denboraldiko liburuxka

Ziburuko hiri - 05 59 47 26 06 - mairie@mairiedeciboure.com

Argitalpen zuzendaria: Ziburuko auzapeza

Testuak: Kultura, Ondarea eta Elkarte Bizitza saila

Sorkuntza: Altergraf · Omaldearen prestatzea: Altergraf

Itzulpena: Argia Urrutxi Bizkarra

Argazkiak: Ville de Ciboure, Ian Grandjean, Mapirudi, Bilot Ortega, Nicolas Petit, Pierre Planchenault,

Komcebo, LePolpesse, Compagnieeliralekonpainia, Beedrone, Freepik, Compagniekankarro

KONTRAZALA



“Zirkuaren energiak eta artisten eta bizilagunen arteko topaketak markatutako denboraldiaren lehen seihilekoaren ondoren, 2026ko hasierako programak ildo beretik jarraituko du: Ziburuk arteen, emozioen eta istorio partekatuen erritmoarekin bibratzea.

Urtarriletik uztaileira, kultura berriro zabalduko da hiri osoan zehar; mediatekan, Guy Poulou erabilera anitzeko espazioan, Errekoletok kaperan, eta baita eskoletan, auzoen bihotzetan eta espazio publikoetan ere. Antzerkia, ipuina, dantza, musika eta zirkua arteak elkartuko dira lotzen gaituena kontatzeko: memoria, transmisioa, jakin-mina eta elkarrekin ikasteko eta amets egiteko gogoa. Eta denok osoki goza dezagun, 2026ko kultur denboraldia guziz dohainikakoa izanen da, sorkuntza artistikoa guzientzat eskuragarri egiteko dugun konpromisoa berretsiz.

Parte-hartze eta belaunaldien arteko proiektuak inoiz baino garrantzitsuagoak izanen dira denboraldi honetan. Haurren, nerabeen, adinekoen eta artisten ahotsak elkartu egingen dira sorkuntza kolaboratibo berrietan. Hartu-eman hauen bidez, lurralde osoak bere istorioa kontatzen du eta berrasmatu egingen da.

Denboraldiaren bigarren zati honek eguneroko heroiei ere omenaldia egingo die: emakume eta gizon horiei, gazte zein heldu, ospetsu zein ezezagun, haien ekintzen edo ametsen bidez eguneroko bizitza eta inspirazio artistikoa elikatzen dutenei. Eta uda iristen denean, Ziburuk musika ospatuko du eta liburuak hartuko ditu, auzoak jaiei, musikari eta irakurketari irekiz, giro alai, poetiko eta atsegin batean.

Beraz, Ziburu islatzen duen denboraldia biziko dugu: sortzailea, abegitsua eta bizia, etorkizunera begira, loturaren indarra eta partekatzearen poza ahaztu gabe.”

Eneko Aldana-Douat,

Ziburuko auzapeza

Émilie Dutoya,

Auzapezordea, kultura, ondare eta elkarte bizitzaren arduraduna

Fanny Lascube,

Hizkuntza politikaz arduratzen den ordezkari aholkularia

URTARRILAREN 10A (OSTIRALA)

BIXINTXO BESTA PATRONALAREN IREKIERA GAUA

🕒 18:30

- 📍 Koxe Basurco karrikan izanen da hitzordua (edo eguraldi txarra eginez gero, frontoiko karpa azpian)

👤 Publiko guzia

📍 Dohain

🗨 FR / EUS

Urtarrilaren 16tik 25era, Bixintxo bestak itzuliko dira, Jai Batzordeak eta udalak prestatutako egitarau batekin.

Egitarauan: ohiko otordua, mus txapelketa, odolki eta fandango lehiaketa eta kalejira!

Urtarrilaren 17an eta 24an (larunbata), frontoiko karpan Jai Batzordeak antolatutako rock, pop eta elektro musika programazioa egonen da.

Eta jaiak hasteko, Ziburuko kaleetan zehar Añarekin batera musikaz hara-honaka ibiltzera gonbidatzen zaituztegu!

Ziburuko bizitzako ezinbesteko hitzordu honetarako, eta ohitura den bezala, Aña txotxongilo erraldoia itsasotik aterako da Ziburuko biztanleekin elkartzeko eta haiekin urte hasiera ospatzeko.

Etorri zaitetz Marinelak Danborrada eta bere eskolen danborrada, Ziburuko Estudiantina, Ziburuko Euskaldun eta Begiraleak-ek gidatuko duten musika eta giro atsegineko ekitaldira.

Aurten, kaleko emanaldi sentikor eta parte-hartzaileengatik ezaguna den Des Vents et Marées konpainiak gurekin bat egingo du irekitze desfilean. Bizilagunen istorioetan oinarriturik errealitatea eta fikzioa nahasten duten unibertso paregabearekin, sorpresa asko erreserbatzen digu!



OTSAILAREN 13A (LARUNBATA)

VIVALDI & CORELLI, VIRTUOSITÉ A L'ITALIENNE KONTZERTUA

ORCHESTRE DU PAYS BASQUE
IPARRALDEKO ORKESTRA-REN

Murgil zaitez Italiako Barrokoaren bihotzean, biolin-jotzaile-konpositore handiak ezagutarazi ziren garai bizian, besteak beste, legendazko Antonio Vivaldi. Orkestraren eta concerto-aren garapenak musika goitik behera aldatu zuen, solo-ak eta concerto grosso-a indarrez beteriko ballet liluragarri batean nahastuz.

Amandine Beyer-en zuzendaritza eta paregabeko interpretaziopean, Iparraldeko Orkestrak XVII. mendearen amaieran eta XVIII. mendearen hasieran musika-bizitza markatu zuten lanen egitarau distiratsu bat ezagutzera gonbidatzen zaitu. Fintasuna, energia eta birtuosismoa elkartzen diren gaualdi bat, soinu-bidaia ahaztezin bat bizitzeko.

Egitaraua:

Arcangelo Corelli-ren *Sinfonia pour l'oratorio de Loulier "Isabella d'Este"*

Georg Muffat-en *Florilegiu*-tik ateratako suite-a

Francesco Durante-ren *Concerto n° 2 sol min*

Antonio Vivaldi-ren *Concerto ré min RV 565*

Dall'Abaco-ren *Concerto grosso*



© Bilto Ortega

- 🕒 20:00
- 📍 Errekoletok - CIAP Les Récollets kapera
- 👤 Publiko guzia
- 💰 Prezio osoa 18 €
Aurrez erosita 14 €
Prezio murriztua 12 €
Dohain 22 urtetik beherakoentzat

Txarteldegia www.ospb.eus
Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren

JE NE SUIS PAS DE CELLES QUI MEURENT DE CHAGRIN

🕒 19:30

📍 Errekoletok - CIAP
Les Récollets kapera

🕒 12 urtetik aurrerako
publiko guzia

🗣️ Frantsesez

👤 Dohain
erreserbarekin

URDIN KONPAINIAREN (ZIBURU)

Emakume bat itsasbazterrean zain dago. Olatuekin dantzan egiten du, itsasgizonen emazteei ahotsa uzten die eta itxaronaldia, absentsia eta itsasoaren eta lurraren artean zintzilik dagoen bizitza kontatzen ditu.

Bakarkako emanaldi poetiko eta dokumental honek istorioak, oroitzapenak eta emozioak gurutzatzen diren barneko bidaia batera eramane zaitu. Eszenatokian, eguneroko objektuak itsasargi eta itsasontzi bihurtzen dira, eta espazioa ipuin eta oroitzapenen paisaia bizia bihurtzen da.

Ziburuko Hiriak pozik emanen dio ongietorria gure lurraldean eginiko egonaldi batetik sortutako sorkuntza honi, non itsasoak eta harekin loturiko emakumeen istorioek protagonismoa hartzen duten.

Testua: Juliet Darremont-Marsaud eta Pasiphaé Le Bras

Zuzendaria: Juliet Darremont-Marsaud

Antzezpena: Pasiphaé Le Bras


Argia: Manon Vergotte

Soinu kreazioa: Gabriel Darremont-Marsaud

Eszenografia: Mélissa Rouvinet

Ikuspegi koreografikoa: Thomas Bleton

Produkzioa: Urdin konpainia





© Pierre Planchenaut

3pM

COLLECTIF TUTTI-REN (BORDELE)

6 hilabetetik aurrerako haur ttipientzat sortua, 3pM ikuskizunak haurrak eta haien laguntzaileak barneko hiru une sentikor partekatzen gonbidatzen ditu: aurkitzea, esperimentatzea eta erlaxionatzea. Eszenatokian, dantzari batek eta biolontxelo-jotzaile batek mugimendua, soinua eta erritmoa elkarrekin esploratzen dituzte, mugimendu bakoitza jolas eta nota bakoitza emozio bihurtuz.

Ikuskizun interaktibo honek ehundura, soinu eta argiz beteriko unibertso bat eskaintzen die haurrei, non begiradak, keinuak eta objektuak gogoa pizteko puntu bihurtzen diren. Haurren laguntzaileak ere gonbidatuta daude parte hartzera, sentitzera eta haurrarekin batera liluratzera.

3pM esperientzia delikatu, poetikoa eta estimulatzailerik da, une partekatu bat benetako aurkikuntza sentsorial bihurtzen duena.

Eszenatokiko artistak: Julie Läderach (biolontxelo),

Sylvain Méret (dantza)

Produktzioa: Collectif Tutti

Ekoizpen administrazioa: Charlotte Duboscq

Hedapena: Anne Reynaud

- 🕒 15:30
- 📍 Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa
- 👤 0-3 urteko haurrak eta laguntzaile helduak
- 📄 Dohain erreserbarekin
- 🗣️ Frantsesez





APIRILAREN 5A (ASTEAZKENA)

KASKAROT-EN IBILALDIA

ZIBURU, MEMORIA BIZIA

- 🕒 10:00etatik
13:00etara eta
15:00etatik
17:00etara
- 📍 François Rospide
Mediateka
- 👤 Publiko guzia
- 📍 Dohain
- 🗣️ FR / EUS

Ziburuko karrika, kai eta txoko ezkutueta zehar ibilaldi paregabe batean murgildu zaitez, gure herriaren memoria moldatu dutenen istorioek gidatuta. La Grande Illusion elkarteko Mario Bompert-ek bildutako adinekoen ahotsetan oinarriturik, ibilaldiak garrantzia izan duten lekuak hezurmamitzen ditu: antzinako arrantza-lekuak, antzinako autorik gabeko karrikak, historiak markatutako auzoak, baita gaur egungo espazio baketsu eta konplizeak ere. Kaskarot-en Ibilaldia-ren edizio hau gonbidapen bat da: entzuteko, modu desberdinean ikusteko, elkarrekin gogoratzeko. Ziburuko memoria bizirik baitago; fatxadetan irakur, itsasoko airean sentitu eta begiradetan partekatu daiteke. Bizilaguna, bisitaria, gaztea edo zaharra izan: zatoz atzoko arrastoetan barrena, gaur egunekoak hobeto estimatzeko.

FESTI-CONTES

APIRILAREN 15ETIK 25ERA

Urtero, Donibane Lohizuneko mediatekak Festi-contes antolatzen du, Larruneko Mediateken Sarea osatzen duten zazpi herrietan zehar bidaia bat eskainiz; gazteak eta helduak entzuteko, bidaiatzeko eta barre egiteko denbora hartzera gonbidatzen duen ekitaldia.

Ziburuko Hiriak atsegin handiz, festibalaren 13. edizio honetarako emanaldi bat antolatzen du berriro!

Egitaraua argitaratuko da.





**MAIATZAREN 5A
(OSTEGUNA)**

🕒 19:00

📍 Zokoako frontoia

👤 Publiko guzia

📍 Dohain

🗨️ Eleaniztuna

EKO Pyrénées de cirque-
aren barnean aurkezturiko
emanaldia, Europar
Batasunak Interreg VI-A
Espainia-Frantzia-Andorra
Programaren
(POCTEFA 2021-2027)
bidez finantzatutako
lankidetzazko proiektua



Interreg
POCTEFA



Colaboración por
la Unión Europea
 cofinanciada por
la Unión Europea

KANKARRO

KONPAINIAREN KANKARRO IKUSKIZUNA
(VITORIA-GAZTEIZ - HEGOALDE)

Zirkua eta dantza uztartuz, *Kankarro* ikuskizunak Euskal Herriko sagar-laborantzak inspiratutako mundu batean murgiltzen gaitu. Ikuskizunak industrializazioak mehatxatutako nekazaritza-trebetasunak azpimarratzen ditu, modu iragankor eta aireko batean berrasmatuz.

Eszenatokian, sokek, arnesek eta gorputz zintzilikatuek grabitatea eta mugimendu zirkularra aztertzen dituzte, eta eszenografiak bost zentzumenak estimulatzeko dituzte.

Ludikoa, poetikoa eta atsegina, *Kankarro*-k tradizioaren, sorkuntzaren eta partekatzearen arteko loturak ehuntzen ditu, hazitik fruitura.

Zuzendaritza eta interpretazioa: Joana Millet eta Unai Gorri

Dramaturgia eta kanpoko begirada: Corine Cella

Koreografia-akonpainamendua: Maitane Sarralde

Soinu kreaioa: Naia Burucoa eta Xabi Darthayette

Testua: Karmele Jaio

Aire-egitura: Rouge Elea konpainia

Eszenografia: Kankarro konpainia eta Luis Ángel Rojo

Ikus-entzunezko materiala: Lander Garro

Diseinu grafikoa: Berta Brull

ATTENTION A TA TÊTE

🕒 19:00

📍 Santa Gurutze-ko
parkea

👤 6 urtetik aurrerako
publiko guzia

🗨 Mutua

🗨 Dohain

**MAIATZAREN 22A
(OSTIRALA)**

LE POLPESSE KONPAINIAREN IKUSKIZUNA (ALES - GARD)

Hiru malabarista, bainuontzi bat, ehun pilota, hamaika mazo... eta grabitateari aurre egiteko gogo alaia! Umore eta samurtasunez, Attention à ta tête ikuskizunak zirkuaren kodeak berrikusten ditu, baldarkeria, ustekabekoa eta jausialdia elementu jostalari bihurtuz.

Malabarismoaren, antipodismoaren, dantzaren eta objektu-antzerkiaren bidez, hiru antzezleek unibertso bitxi bat sortzen dute, non dena den posible: pilotak biraka egiten dute, mazoak hegan, gorputzak korapilatzen dira... eta hala ere, denak bere lekua aurkitzen du. Elkarrekin, pertseberantzia goraitpatzen dute balentriaren ordezt, energia kolektiboa perfektzioaren ordezt.

Une dibertigarri, hunkigarri eta eskuzabala, non zirkuaren artea askatasun eta elkartasun lekua bihurtzen den.

*Sormena eta antzezpena: Cecilia Zucchetti, Gioia Santini,
Francesca Fioraso*

Kanpoko begirada: Sylvain Cousin

Produkzioa: Le Polpesse

*Ekoizle eragilea: La Verrerie d'Alès - Pôle national
cirque Occitanie*



EKO Pyrénées de cirque-aren barnean aurkezturiko emanaldia, Europar Batasunak Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren (POCTEFA 2021-2027) bidez finantzaturako lankidetzazko-proiektua



Interreg
DOCTEFA



Co-financiado por la Unión Europea.
Desarrollado por el Ministerio de Cultura y Deporte.



XALTAIAN BEST #6 FESTIVAL

VEN. 12 ET SAM. 13 JUIN

Ziburuko kultur eszenaren oinarritzko elementua den Xaltaiian Best 2026an itzuliko da komunikaziozko energiaz beteriko bi gauldirekin!

Ostiralean, gozatu familia giroko gauldi batez Zokoa auzoaren bihotzean: kontzertuak eta belaunaldiz belaunaldi partekatu ahal diren musika aurkikuntzak. Larunbatean, zatoz pilotalekura, munduko musika, soinu garaikideak eta giro atsegina nahastuko diren gauldi handi batera.

Eklektikoa den festibal honek musika bere forma guzietan ospatzen du eta bizilagunak, familiak eta bisitariak biltzen ditu itsaso eta mendiaren artean ospatzen den bi egunetako aire zabaleko bestan.

📍 Koxe Arbiza plazan
ostiral gauean eta
Frontoiko plazan
larunbat gauean

👤 Publiko guzria

📶 Dohain

💬 Eleaniztuna

0/6 ★ PILOTA PL.
• HONKY TONKY TRIO
U • DJ ITZALETAN SUA







EKAINAREN 17TIK UZTAILAREN 19RA


ZIBURU HARTU LIBURU CIBOURE PART EN LIVRE



7. edizio honetan, Ziburu Hartu Liburu berriro ere Partir en Livre ekimen nazionalaren parte da, heroiak beren forma guzietan omenduz. Mitologikoak, literarioak, egunerokoak edo engaiatuak izan, pertsonaia inspiratzaile hauek ausardia, sormena, errebolta eta iraunkortasuna aztertzeo aukera ugari eskaintzen dituzte. Hiru astez, liburuak jolas eta esplorazio-espazio bihurtzen dira denentzat: irakurketek, tailerrek, topaketek eta ikuskizunek istorioen indarra eta heroien eguneroko papera (berriro) deskubritzeko aukera ematen digute. Harritzeko, esploratzeko eta irakurketa eta sorkuntza oneak familia osoarekin partekatzeo gonbidapena. Egitarau osoa maiatzetik aurrera egonen da eskuragarri. Zatoz zure liburuekin, zure jakin-minarekin eta harritzeko gogoarekin!

- 📍 Hainbat toki
- 👤 Publiko guzia
- 📖 Dohain
- 🗣 FR / EUS

CNL CENTRE
NATIONAL
DU LIVRE





FRANÇOIS ROSPIDE MEDIATEKA

URTARRILETIK EKAINERAKO EGITARAUA

BELARRI TTIPIAK JOLASAK, ISTORIOAK ETA HAUR KANTAK KEINU HIZKUNTZAREKIN

Les ateliers de Lola-ren eskutik

Partekatu familiaratean une bat tailer dibertigarri honekin. Lolak, keinuekin batera, haur kanta eta istorioak aurkeztuko dizkizu animaziozko dekoratu baten bitartez. Elkarrekin egoteko, irudimenerako eta dibertsiorako une bat!

- 📅 Urtarrilaren 17a (larunbata)
- Otsailaren 7a (larunbata)
- Martxoaren 14a (larunbata)

- 🕒 9:30 - Iraupena: 45 min
- 👤 0-3 urte - FR
- ✂️ Izena ematea beharrezkoa da

BELARRI TTIPIAK IRAKURKETAK ETA HAUR KANTAK FRANTSESEZ ETA EUSKARAZ Libreplume-n eskutik

Elkartu gaituzten, istorio eta haur-kantak osoturiko esnatze leun bat egiteko! Liburutegia ireki aurretik familiaratean partekatzeke une bero bat.

- 📅 Apirilaren 4a (larunbata)
- Maiatzaren 23a (larunbata)
- Ekainaren 13a (larunbata)

- 🕒 9:30 - Iraupena: 30 min
- 👤 0-4 urte - FR + EUS
- ✂️ Izena ematea beharrezkoa da

“ET SI ON EN PARLAIT” KULTURA KLUB-A

Liburu, musika eta zinema kluba... kultura, labur esanda! Hunkitu, sumindu edo garraiatu zaituzten lanak mediatekakako beste kideekin partekatu nahi badituzu, elkartu zaitez gurekin!

- 📅 Urtarrilaren 13a (asteazkena)
- Apirilaren 7a (asteazkena)

- 🕒 18:30
- 👤 Publiko guzia - FR
- ✂️ Izena ematea beharrezkoa da



SORKUNTZA TAILERRAK

Paperezko txotxongilo artikulatu bat sortzea

- 📅 Otsailaren 25 (asteazkena)
- 🗣 EUS
- 🕒 14:00 - Iraupena: 1:30 inguru
- 👤 6 urtetik aurrerako publiko guzia

Broderian hastapenak

- 📅 Martxoaren 11a (asteazkena)
- 🗣 FR
- 🕒 14:00 - Iraupena: 1:30 inguru
- 👤 8 urtetik aurrerako publiko guzia

Origami tailerra

- 📅 Apirilaren 1a (asteazkena)
- 🗣 EUS
- 🕒 14:00 - Iraupena: 1:30 inguru
- 👤 6 urtetik aurrerako publiko guzia

**Ezagutu dezagun Van Gogh
BlinkBook-en bitartez**

- 📅 Maiatzaren 6a (asteazkena)
- 🗣 EUS
- 🕒 14:00 - Iraupena: 1:30 inguru
- 👤 8 urtetik aurrerako publiko guzia

KONTUZ OTSOAREKIN!

**Sareko mediateketako langileen eskutik
ikuskizun musikala**

Otsoen istorioek haurrentzako liburuak betetzen dituzte. Batzuetan beldurgarriak, beste batzuetan nahi gabe komikoak. Iluntzean, berraurkitu ezazu pertsonaia garrantzitsu hau arretaz hautatutako liburuen bidez eta musikarekin, mediatekako langile talentudunen eskutik!

- 📅 Urtarrilaren 23a (ostirala)
- 🕒 18:30
- 👤 Gurasoak eta 5 urtetik aurrerako haurrak
- 🗣 FR + EUS

**IZENA EMATEA
BEHARREZKOA DA**



Errealitate birtualeko kaskoak

Urtarrilaren 6tik otsailaren 28ra, erabili itzazu errealitate birtualeko kaskoak Ziburuko mediatekan! Zein unibertso aukeratu duzu? Monet edo Van Gogh bezalako margolarien lanak gertutik ezagutu nahi dituzu, mundu fantastikoetan edo antzinako Egipton murgildu nahi duzu, edo metraje laburreko film murgilgarriak ezagutu nahi dituzu?

- 👤 13 eta 99 urte bitartekoentzat
Ez da gomendagarria epilepsia duten pertsonentzat
- 🕒 6 eta 44 minutu artean,
aukeratutako gaiaren arabera
- 🗂️ FR
- 📅 SAurkezpen gaudiaren urtarilaren
29an (osteguna), 18:30etan
mediatekan

2026KO MEDIATEKAKO BERRIAK BIBLIO 64-REKIN LANKIDETZAN

Musika tresnen maileguak

Otsailaren amaieratik uztailaren hasierara arte, hartu itzazu maileguan musika tresnak Ziburuko mediatekan!

Gitarra klasikoak eta elektrikoak, teklatuak, kaxoiak, handpanak, ukuleleak eta baxuak.

Instrumentu gehienekin batera osagarriak utziko dira (gitarra akordatzailak, ikasketa metodoak, anplifikadoreak, kaskoak, etab.) entseatu, jo eta sortu ahal izateko!

- 📅 Aurkezpen gaudiaren otsailaren 27an
(ostirala), 19:00etan mediatekan

NON ETA NOIZ AURKITU AHAL GAITUZU?

- 🕒 Asteartea: 15:00-18:00
Asteazkena: 10:00-13:00 eta 15:00-18:00
Ostirala: 15:00-19:00
Larunbata: 10:00-13:00
- 📍 23 bis François Mitterrand etorbidea
64500 ZIBURU

- ☎ 05 59 47 12 93
- ✉ mediatheque@mairiedeciboure.com
- 🌐 mediatheque.ciboure

RÉSEAU
DES MÉDIATHÈQUES
DE LA RHUNE



LARRUNGO
MEDIATEKEN
SAREA



BITARTEKARITZA PROIEKTUAK

DENBORALDI OSOAN ZEHA

2022. urtetik, Ziburuko Hiriak arte eta kultura hezkuntzari (AKH) buruzko hausnarketa orokor bat egingen du hiriko ikastetxeetan. Euskal Hirigune Elkargoaren ikuspegiarekin batera pentsaturiko (Euskal Herrian Hezkuntza Artistiko eta Kulturala) urrats hau, 2023an gauzatu zen hiriko eskolekin garatutako proiektu esperimentalen bidez.





Urteak pasa ahala, dinamika hau ikasleei proposatzen zaizkien hezkuntza-akzio guzietara (arte, kirola, zientziak edo hizkuntzei buruzkoak) zabaldutako, 2024-2025 ikasturtearen hasieran, udal baliabide guzien eta lurraldeko bazkideen sare baten inguruan egituratu zen arte, kultura, zientzia eta kirol hezkuntza programa egituratu bat burutuz.

Ziburuko Hiriak ttipi-ttipientzat zuzenduriko eta belaunaldien arteko loturak sustatzeko kultura-bitartekaritza proiektuak ere garatzen ditu, bizilagunekin, elkarteekin eta hezkuntza-erakundeekin lankidetzan. Helburua berdina da: haur, gazte zein adinekoei jakin-mina, pentsamendu kritikoa, sormena eta proiektu kolektibo esanguratsueta parte hartzen laguntzea, aldi berean kultura gizarte-kohesioaren eta herritarren parte-hartzearen benetako motor bihurtzen laguntzeko.

KLASE MAGISTRALA HARPAREN INGURUAN IPARRALDEKO ORKESTRAREN KONTZERTUAREN KARIETARA.

📅 Otsailaren 7a (larunbata)

🕒 15:00etatik 17:00etara

📍 Errekoletok - CIAP Les Récollets kapera

👤 Publikoa: Hegoaldeko kontserbatorioen sareko harpa ikasgelak

“Ziburuko memoriak”, proiektu partekatu bat

2025-2026 denboraldian zehar, Ziburuko Hiriak adinekoren oroitzapen bizietan oinarritutako giza-abentura artistiko garrantzitsu bat egiten ari da. GEZU zentroaren Aristide Briand eskola ohira lekualdatzea ospatzeko, proiektu honek bizilagunak, gazteak eta helduak, herriko historia (ber)ezagutzera eta berrikustera gonbidatzen ditu.

La Grande Illusion-ek ekoiztutako podcast baten bidez, Iduski Ederra Klubeko adinekoren oroitzapenetan oinarrituta, 14 eta 18 urte bitarteko 12 gaztek haien istorioak hezuramamituko dituzte antzerki emanaldi original batean.

📅 Sorkuntza hau otsailaren 16tik 21era Guy Poulou erabilera anitzeko gunean egingo den ikastaldi batean egingen da.

✂ Otsailaren 21ean (larunbata) aurkeztuko da, 17:00etan, Ziburuko karriketan. Otsailaren 21ean (larunbata) aurkeztuko da, 17:00etan, Ziburuko karriketan.

✂ Proiektuari eta ikastaldiari buruzko informazio gehiago lortzeko, Kultura, Ondare eta Elkarte Bititza Sailarekin harremanetan jar zaitezke.

Podcasta entzun hemen:

Ziburuko oroimen eta hausnarketak
La Grande Illusion liburu
saltegiaren eskutik





**JE NE SUIS PAS DE CELLES QUI MEURENT DE CHAGRIN
IKUSKIZUNAREN EMANALDIA MARTXOAREN 13AN
(OSTIRALA) IZANGO DA LIZEOKO IKASLEENTZAT,
GOIZEKO 10:00ETAN.**

**LA BOÎTE À TUTTI, TTIPI-TTIEPIKIN LAN EGITEN
DUTEN PROFESIONALENTZAKO FORMAKUNTZA BAT,
GOGOA PIZTEKO MUSIKAN ETA
DANTZA-MUGIMENDUAN OINARRITUA.**

2026an, Ziburuko Hiriak, Euskadiko Hirigune Elkargoarekin eta Tutti Kolektiboarekin lankidetzan, titti-ttiepien lan egiten duten profesionalentzako heziketa programa bat antolatuko du. Programa hau La Boîte à Tutti, musika eta dantza uztartzen dituen maleta hezitzailea, eta ttipientzat eta haien laguntzaileentzat diseinatutako 3pM ikuskizunean oinarrituko da.

Helburua tresna ezagutzea, haurtzaindegietan tresnaren erabilera esperimentatzea eta ttipien garapen motorra eta komunikazio ez-berbala sakontzea da.

 Martxoaren 16a (astelehena) eta 17a (asteartea)

 Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa

URTARRILETIK EKAINERAKO ARTE ETA KULTURA HEZKUNTZA PROIEKTUAK

► Sagarrari oda bat bere forma guzietan

Zirkuak eta dantzak sagarrari omenaldia egiten diote keinu, manipulazio eta sorkuntza kolektiboaren bitartez. Kankarro konpainiako artistek klaseekin lan egingo dute, ikasleak zirku-arteetara hurbiltzeko eta sorkuntza kolektiborako gogoia pizteko.

► **Attention à ta tête**, edo inperfekzioaren edertasunaren ospakizuna
Hiru malabaristak baldarkeria jolas, keinuak poesia eta jausialdiak une partekatu bihurtzen dituzte. Ikasleek artistekin batera parte hartuko dute malabarismo eta objektuen manipulazio tailerretan, iraunkortasuna, lankidetzeta eta sormena jolasaren bidez ezagutuz.

► Ziburuko eskoletako literatur obra gogokoenak

Hiru eskoletan haurrentzako euskal literaturari buruzko ikastaro bat eskaintzen da, hileroko hitzorduekin. Helburua: deskubritzea, irakurtzea, eztabaidatzea... eta «eragile» hasiberri bihurtzea!

► Ziburu hartu liburu - Ciboure part en livre-n baitan autoreekin topaketak

Topaketak, irakurketak eta tailerrak gazte-literaturako idazleekin, irudimena pizteko, irakurzaletasuna suspertzeko eta irakurleen eta sortzaileen arteko elkartrukeak sortzeko.

► Lehengo sorginak, gaurko heroiak

Historiaren eta sorkuntza garaikidearen artean emakumezko figura indartsuak nabarmentzen dituen bidaia artistiko eta hezitzailea, rolak eta ereduak kuestionatzeko.

SORKUNTZARI LAGUNTZA

Ziburuko Hiriak bere lurraldean sorkuntza artistikoa babesteko konpromisoa hartu du, batez ere lan-guneak eskainiz. Ekimen honek tokiko bizitza kulturala aberastea du helburu, artistei hiriarekin eta bertako biztanleekin elkarriketan beren proiektuak garatzeko aukera ematea, eta Ziburuko ondareak, paisaiak eta memoriak inspiratutako sorkuntzak sustatzea.

Théâtre des Chimères-ek Marinela eskolan egoitza-egonaldia bat antolatuko du *Impeccable, et autres pièces aux pieds légers* ikuskizunerako.

Udaberrian, Ziburuk Théâtre des Chimères ere errezibituko du egoitza-egonaldia Marinela eskolan. Apirileko oporretan, konpainia finkatu egingen da *Impeccable, et autres pièces aux pieds légers*-en inspiratutako hiru pieza labur sortzeko. Eskolan bertan egingen den presentzia artistiko honek, haien lana giro bizi eta ezagun batean garatzeko aukera emango die artistei, tokiko komunitatearekin lotura berezi bat sortuz.

XAB XAB ARTISTAREN BIGARREN MURAL BATEN SORKUNTZA ZIBURUN

2025eko udatik aurrera eginiko ekimenekin jarraituz, Ziburuko Hiriak Xab Xab artista hartuko du Encan auzoan kaleko arte mural bat sortzeko. Xab Xab lurraldean ezaguna da bere zure-beltzeko konposizioengatik. Gazteentzako kaleko arte tailer bat zuzendu zuen joan den udan eta orain herriarekiko konpromisoa jarraituko du sorkuntza honekin, lekuaren historia eta identitatearekin bat egiten duena.

Proiektu honek hiriak espazio publikoetan sorkuntza garaikidea sustatzeko eta artistak beren sormen prozesuan laguntzeko duen konpromisoa erakusten du, aldi berean tokiko ondareari balioa emanez eta bizilagunekin lotura esanguratsua sortuz.



TKT Konpainiaren egonaldiaren harrera Presq ikuskizunerako

TKT konpainia Ziburura itzuliko da bere
sormen lanarekin jarraitzeko.



© Compagnie
Elirale konpainia



© Compagnie
Elirale konpainia

Elirale konpainiaren egonaldiaren harrera bOta proiekturako

Ziburuko Hiriak Elirale konpainia errezibituko du uztailen Guy Poulou erabilera anitzeko espazioan sormen egonaldi baterako. Artistak, espazio publikoetarako pentsatutako bOta ikuskizunean arituko dira lanean. Jauzi, ahots, zirkulu eta herriko dantzen energia jaitsuaren bidez kultura katalana eta euskalduna elkarriketa baten batzen dituen ikuskizuna da.

Ilerketa aste hau uztailaren 17an (osteguna), 19:00etan, publikoari aurkeztu aurreko lehenengo emanaldiaren aurkezpenarekin amaituko da, sormen prozesuaren eta dantzatu eta abestutako bidaia honen hasierako etaparen ikuspegi bat eskainiz.



EKITALDIETARA ETORRI ZIBURUKO KULTURA



- Bizikleta



- Oharra :

Ikuskizun ezberdinetara etortzeko autoa partekatu nahi baduzu, jarri zaitez harremanetan Kultura, Ondarea eta Elkarte Bizitza Sailarekin, beste ikusleekin harremanetan jar zaitzaten.



- Ziburutik igarotzen diren autobus lineak :



4 Hendaia Hondartza handia - Donibane Lohizune Atsedengunea



16 Donibane Lohizune Lafitenea - Ziburu Zokoako hondartza



17 Donibane Lohizune Alturan - Ziburu Zaldi Xurito



26 Hendaia Orangers - Donibane Lohizune Atsedenekua

SAN BIXINTXO ELIZA

GUY POULOU ERABILERA
ANITZEKO ESPAZIOA

MEDIATEKA

TTIKI TRINKETEA



AOIZ ERREKOLETOAK
LES RÉCOLLETS




ZOKOAKO
FRONTOIA



ZOKOAKO GOTORLEKUKO
HONDARTZA





INFORMAZIO PRAKTIKOA ETA ERRESERBAK

NOLA EGIN ERRESERBA?

Egin erreserba zuzenean Kultura, Ondarea eta Elkarte Bizitza sailean:

- ▶ Telefonoz
- ▶ Posta elektronikoz
- ▶ Linean www.billetterie-ciboure.mapado.com-en

PUBLIKOARI HARRERA

Kontuan izan, eserlekuak ez daude zenbakituta (eserleku libreak).

NON ETA NOIZ AURKITU KULTURA, ONDAREA ETA ELKARTE BIZITZA SAILA?

🕒 Asteartetik ostiralera, 8:15etatik 12:00etara

📍 Camille Jullian plaza - Denak Batean eraikina - 2. solairua
64500 ZIBURU

📞 06 10 75 45 61

✉ animations@mairiedeciboure.com

🌐 [cultureciboure](https://cultureciboure.com)

📷 [ciboure_ziburu](https://www.instagram.com/ciboure_ziburu)

Irudi eskubideei buruzko oharra:

Zuk edo zure seme-alabak Ziburuko Hiriak antolatutako ekitaldi batean parte hartzen duzue. Testuinguru horretan, argazkiak edo bideoak egin daitezke ekitaldi hau ilustratzeko eta sustatzeko. Hiriaren argitalpenetan argitaratu ahal izango dira, bai paperean (aldizkaria, liburuxka, eskuorria, gida, etab.) bai digitalean (webgunea, sare sozialak, etab.), eta tokiko komunikabideekin partekatu ahal izango dira (Sud-Ouest, etab.). Argazki edo bideo hauek agertu nahi ez baduzu, jakinarazi iezaiozu mesedez tokian dagoen antolatzaileretako bati.

